

2019- 2020 IKASTURTEA

BARNE FUNTZIONAMENDURAKO OINARRIZKO ARAUAK

1. Bertaratzea eta puntualtasuna

Eskola orduetara bertaratzea nahitaezkoa da, baita puntualtasuna eta onartutako ordutegiak betetzea; kasu guztietan 2010eko otsailaren 19ko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, lanbide-heziketako heziketa-zikloen ezarpena eta ebaluazioa arautzen duen Agindua aplikatuz.

Modulu edo erronka bakoitzaren %20a baina gehiagoko orduetara ez agertzeak (motiboarekin ala ez), modulu horren ebaluazio jarraierako edo erronka horren ebaluaziorako eskubidearen galera dakar. Kasu hauetan, ekaineko ebaluazio ohikora aurkeztu beharko du ikasleak

Ikasleek **eskola orduren bat galdu dutenean**, eskolara datozenetik aurrera aste beteko tartea izango dute ez agertzea **zuritzeko**, edozein lan-harremanetan halakoetan eskatzen den agirien moduko bidez. Zuritze-agiri guztiak tutoreek gordeko dituzte.

Ikasleren bat ikasgelatik edo tailerretik **kanporatzen** bada, **ez bertaratze** gisara hartuko da (har daitezkeen bestelako neurriez gain) eta nahitaez irakasle-gelan dagoen guardiako irakaslearengana joan beharko du, eta hau ez balego Ikasketa-Buruarengana.

Puntualtasun hutsegiteak asistentzia faltatzen hartuko dira. Jardunaldiaren hasieran, **5 minutuko** atzerapena hartuko da puntualtasun hutsegitez. Eskola orduen artean **5 minutuko** tartea izango da ikasgelaz aldatu behar bada eta **10** tailerretara joan behar izanez gero, arropa aldatu ahal izateko, hauek pasa ondoren ikasleek ikasgelara sartu ahal izango dute, baina puntualtasun hutsegitez hartuko da.

2. Eskolaren guneak

- LANBIDE-rekin elkarbanatzen dugu eraikina, **guztiz debekatuta** dago beraien gunean sartzea eta bertako langile eta erabiltzaileak molestatzea.
- Tabakismoaren aurkako 42/2010 legea jarraituz, **erabat debekatuta dago eskola eremu osoan erretzea**, aire zabalean dagoen gunea barne.
- Eskola ordua amaitzean ikasgela, tailer eta bertako elementu guztiak (mahaiak, aulkiak, erremintak...) jasota eta txukunduta lagako dira. Era berean, **debekaturik dago** mahaietan pintatzea, paperak lurrera botatzea, ikasgela nahiz tailerretan jan edo edatea (ura ez bada).
- Eskolaren gune, material eta makinaria guztia errespetatu egingo dira eta beharrezko garbitasunez erabiliko dira ikasgela eta tailerrez gain, korridore, komun, sarrera eta kanpo espazioak.

- **Erabat debekatuta dago** korridoreetan arropaz aldatzea , honetarako aldagelak erabiliko dira eta aldatu ondoren norberaren gauzak takiletan jasoko dira; jardunaldiaren amaieran aldageletan agertzen diren gauza denak bildu egingo dira eta berreskuratu nahi dituenak zigorra izango du, hala nola takilaren giltza gal dezanak.
- Ikasleek **erabat galarazita dute autoa hesitutako eremuan aparkatzea**, Kanbide eta EAGI-ko irakasleentzako delako, eta ez bertako erabiltzaile eta ikasleentzat.

3. Bestelako kontuak

Ikasturtearen lehen hilean zehar talde bakoitzaren **IKASLE ORDEZKARIEN HAUTAKETA** egingo da. Ekintza hau Ikasketa-Buruak antolatuko du eta talde bakoitzaren tutoreak gidatuko du.

Ikasle guztiek nahi beste iradokizunak eta/edo erreklamazioak egiteko eskubidea dute, honetarako araututako bidea hau izango da:

- erreklamazioa egin nahi dion irakaslearengana joko du; erantzuna gustuko ez badu tutorearengana jo dezake
- desadostasunak bere horretan badirau, Ikasketa-Buruarengana jo dezake; honek erabakia har dezake edo zuzendariri bidera diezaioke
- azkenik, alde guztiek irtenbidea ontzat ematen ez badute, Gizarte-Kontseilura jo dezakete beraien ordezkarien bidez.

Moodle-n duzuen iradokizun postontzia erabiltzera bultzatzen zaituztegu, guztiz irekita gaude entzutera.

Arau hauek denak ezinbesteko ikusten ditugu eskolaren elkarbizitza onerako.

2019-ko irailaren 6a